

BOXEOAREN LORALDIA

Lehorte luzearen ondoren, suspertze bidean da boxeoa Euskal Herrian

📁 **KIROLAK** / Ruben PASCUAL @GARA_rpascual

Urte luzez izandako gainbehera aurkari hartuta, patuaren ringera igo da euskal boxeoa, suspertu eta garai batean gurean izan zuen sona berreskuratzeko. Eginiko lana fruituak ematen hasi den erakusgarri dira Jon Fernandez, Kerman Lejarraga edo Andoni Gago bezalako kirolariak, boxeozaleen grina eta itxaropena piztu dutenak.

Boxeozaleek hitzordu garrantzitsua dute gaur Bilboko La Casilla pabilioian. Jon Fernandez borrokalariak WBC munduko junior txapelketa jokatu du jatorri armeniarra duen Mikael Mkrtchyanen aurka. Lehia horretan parte hartzen duen lehendabiziko euskal herritarra da *Jonfer*.

Egun berean, Joana Pastrana ere ringera igozkeoa zen. Bil-

bon profesional mailan antolatutako emakumezkoen lehen borrokaldia izan behar zen, baina azken uneko aldaketa bat dela medio bertan behera utzi du saioa boxeolari madrildarrak: Augsburgen (Alemania) Christina Rupprecht izango du aurrez aurre, WBC munduko txapelketarako txartela eskuratu nahian. Nolanahi ere, zita benetan interesgarria izango da La Casillakoa, boxearen munduan beren bidea urratzen hasiak diren bo-

Lerroon azpian, ezkerrean, Andoni Gago, alaba besoetan hartuta duela. Eskuinean, Kerman Lejarraga, ring gainean. Iñaki MENDIZABAL

xeolari gazteak ere igoko direlako ringera, tartean Danel Abando deustuarra.

21 urte eskas dituen arren, asko entzun da azkenengo hilabeteotan Jonfer etxebarritarren izena, superwelter pisuan eta pisu ertainean munduko txapel-dun izandako Sergio Maravilla Martinez argentinarraren eta Lou DiBella promotore estatubatuarren eskutik, Ameriketako Estatu Batuetan hiru urtez borrokatzeko kontratua sinatu baitzuen iragan ekainean. Joan den mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan Paulino Uzquidun eta Isidoro Gaztañagak Atlantikoaz bestalde borrokatu zutenetik, euskal herritar bakar bat ez da igo ring estatubatuarretara. Orain arte.

Duela aste gutxi, irailaren hasieran, egin zuen debuta eta ate nagusitik sartu zela profesionalen munduan esan daiteke. Naciff Chatito Castillo mexikarraren aurrean nagusitasun argia erakutsi eta KO teknikoz irabazi zuen. Borrokaldia zortzi *round*-

ekoa zen arren, bosgarrenean eten egin zuen epaileak, Jonfer garaile izendatuz. Jarraian lortutako zazpigarren KOa izan zen etxebarritarrentzat New Yorkekoa. «AEBetarako bidaia ikaragarria izan zen, amets bat bizi-tzen ari ginela sentitu genuen eta luzea izatea espero dugun bide baten hasieran geundela pentsatu genuen bertan», dio Jonferrek. Borroka baino bi aste lehenago aurkaria aldatu zioten, «baina horrek ez zion eragin aurrez eginda geneukan lanari. Dena primeran atera zen eta, gainera, bertan ere egin genuen lanarekin gustura geratu ziren eta hori ere garrantzitsua da».

Jon Fernandez, hala ere, ez da Euskal Herrian boxeolari lotuta oihartzuna lortzen ari den kirolari bakarra. Hor dira ere, oso maila altuan lehiatzen, Kerman Lejarraga eta Andoni Gago bizkaitarrak, Gasteizko Nacho Mendoza, Zumaian bizi den Yuri Ponpilio edo Ruben Diaz nafarra. Izenok guztiok, beste promesa gazte askorekin batera, bo-



xeoa gurean loraldia bizitzen ari dela frogatzen dute.

Euskal Herrian boxeo zaletasuna ez da ez gauza berria. Hamarkada batzuk atzera indar ikaragarria zuen eta horrek ere bazun bere isla komunikabideetan: eguneroko jarraipena egiten zitzaion, eta, egun futbolaz edo txirrindularitzaz bakarrik idazten duten kazetariak dau-den bezalaxe, boxeoa adituak ziren kazetariak izaten ziren Euskal Herriko komunikabide askotan, kirol hori bakarrik lan-tzen zutenak. Esate baterako, Bilbon bakarrik (Bizkaian izan du beti indarrak handiena boxe-oak), hamahiru boxeo saio anto-latu ziren 1965ean, hau da, Eus-kal Herriko beste herri eta hiriburuetan antolatutakoak kontuan hartu gabe, hilabetea bat baino gehiago.

Testuinguru horretan egin zuen debuta, 1968an, Jose Ma-nuel Ibar *Urtain* boxeolariak, Ordiziako futbol zelaian. Segun-du batzuk besterik ez zituen iraun borrokaldiak, KO bidez irabazi zuelako. Modu horretan, gainera, 27 garaipen lortu zituen segidan. Plazak aise betetzen zi-tuen Urtainek, eta, berezkoa zuen erakargarritasuna lagun, boxeoa gurean bizi zuen mo-mentu onaren erakusle bihurtu zen.

GAINBEHERA LUZEA

Alabaina, 80ko hamarkada iris-tearekin batera, gainbehera eto-rra zitzaion boxeolari Euskal He-rrian eta Estatu espainolean, lehorte gogor baten hasiera, duela gutxira arte luzatu dena. Nolabait esateko, bigarren maila batera pasa zen boxeoa eta kos-tatu zaio hortik irten eta berriro ere martxan jarri eta urratsak ematen hastea.

Boxeoaren mundua barrutik bizi dutenak bat datoz esatean oso nabarmena dela azken biz-pahiru urteotan Euskal Herrian boxeoa bizi izan duen berpiz-kundea, bertoko kirolariak mai-la altuan eta arrakastarekin lehiatzen hastearekin batera. Nola azaldu daiteke, baina, feno-meno hori? 2014ko abuztuaren 2an, Andoni *El Macho* Gago bil-botarrak Espainiako Txapelketa

Maila profesionalean lehiatzen diren boxeolarien kopurua nabarmen hazi den arren, oso zaila da oraindik bertatik bizitzea. Euskal Herrian bi kasu baino ez daude gaur egun

Andoni Gagok 2014an Espainiako Txapelketa irabazterakoan piztu zen boxeoa txinparta, eta Kerman Lejarraga eta Jon Fernandez bezalako kirolariek egin du eztanda gero

irabazi zuen, Benalmadenan (Malaga, Andaluzia). 1984an An-doni Amañak txapeldunaren ge-rrikoa irabazi zuenean hasitako 30 urteko lehorteari amaiera eman zion Otxarkoagakoak.


Horrek asko lagundu zuen, noski, jendearen artean zaleta-suna pizten. «Nik beti esaten dut 'Andoni Gago efektua' dago-ela guztiaren atzean», azaldu du Txutxi Del Valle, Zorrotzaurreko Mampo Gym gimnasioko pres-tatzaileak. «Ondoren Kerman Lejarraga etorri da eta berak bo-xeoa beste maila batera eraman du. Kontuan hartzeko moduko kirola da orain», dio Del Vallek, MGZ taldean Gago eta Lejarra-garekin lan egiten duenak.

IZEN HANDIAK

Jon Fernandez Euskobox talde-an ari da eta berak ere badio «nabarmen» hasi dela boxeoa, «mundu honetan egiten ari den lan handiaren seinalea». «Uste dut Euskobox enpresa sustatzai-leak hazkunde horretan zerikusi handia duela: ekitaldi asko anto-latu dituzte, boxeolari on asko atera dituzte eta horrek medio-en arreta erakarri du berriro».

Horrez gain, Del Vallek uste du federazio desberdinek ere ar-dura handia dutela, boxeolari, entrenatzaile eta epaileek gero eta prestakuntza maila altuagoa izan dezaten eta baldintza hobe-etan aritu daitezen lagundu du-telako. «Agian lehen ez bezala, orain kirolariaren osasuna dago ikuskizunaren eta gainerako guztiaren gainetik».

Faktore horiek guztiek, komu-nikazio eremuan egin diren au-rrerapausoekin batera, boxeoa Euskal Herrian suspertzen la-gundu dute, nabarmen gainera.



Kerman Lejarraga, Morgako errebolberrera bezala ezaguna. Iñaki MENDIZABAL

GENERO ESTEREOTIPOEI ETA AURREIRITZIEI KOLPEKA, BIDEA URRATUZ DOAZ EMAKUMEAK

Beste kirol askotan gertatu den bezalaxe, boxeoa ere pisu handia izan dute generoari lotutako estereotipoek, alegia, ez dela emakumeentzako kirola, gizonek beraien artean gizontasuna eta indarra erakusteko besterik ez zuela balio, eta abar. Boxeoa gurean bizi duen goraldiarekin, zorionez, etiketa eta aurreiritzi horiek hausten doaz gutxika-gutxika eta gimnasioetan zein ring gainean ikusten diren emakumeak gero eta gehiago dira. Horrekin batera maila ere goraka doa eta pixkanaka-pixkanaka bada ere, profesionalizazioarako bidea urratzen doaz emakumeak. Boxeo saioak ikustera hurbiltzen diren emakumeen kopurua ere nabarmen hazi dela diote kirol honen barrunbeak ondo ezagutzen dituztenek. «Horrek mesede handia egin dio boxeolari, beti izan duen itxura txarra uxatzen lagundu duelako eta jendeak kirol hau beste begi batzuekin ikus dezan balio izan duelako», dio Mampo Gym gimnasioko Txutxi del Vallek.

Ring gainean ikusten denean ere aldea atzematen du, esaterako, Euskobox enpresa sustatzaileko Jose Javier Ganboak: «Emakumezkoen borrokaldi profesionalak ikusteko zortea izan dut, eta askotan mutilenak baino hobeak dira, baita amateur mailan ere, tresna tekniko gehiago erabiltzen dituztelako». «Tenisean eta beste kirol batzuetan ere hala gertatzen da: teknikoki ona den partida bat ikusi nahi izatekotan, hobe duzu emakumezkoena ikustea», azaldu du Ganboak.

Eusbokoxeko ordezkariaren aburuz, beste kirol batzuetan bide hori urratzen doan neurri berean, denbora kontua besterik ez da eta ziur dago gero eta emakume gehiagok egingo dutela ring baten gainean lehiatzeko hautua: «Denbora kontua da. Beste kirol batzuetan gertatzen den bezala, boxeoa ere berdindu egingo da lehiatzera animatzen diren gizonen eta emakumeen kopurua. Nik ez daukat inolako zalantzarik».

Gimnasioak ugaritu egin dira, boxeoa praktikatzera animatzen den jende kopuruaren seinale eta hori lehiatzera iristen diren kirolari kopuruan ere islatzen da. Askoz boxeo saio gehiago antolatzen ari dira Euskal Herrian azken bizpahiru urteotan, eta bertaratutako jende kopurua ere biderkatu egin da. Eusko-boxeko Jose Javier Ganboak kontatu digunez, «lehen, saioak frontoietan edo kiroldegi txikietan egiten ziren. Guk boxeoa La Casillara eraman genuen berriz, horrek duen arrisku ekonomikoarekin, halako lekuak alokatzeko diru asko behar delako». Miribillako Bizkaia frontoia ere hainbat aldiz bete da euskal boxeolarien borrokaldiak ikusteko, 4.000tik gora lagun bilduta.

Boxeoari lotu izan zaion irudi txarra atzean uzteko pausuak eman diren arren, lan asko dago egiteko, oraindik ere mundu horren baitan dagoen batasun falta nabarmena baita

Egun sona duten boxeolari profesionalez gain, amateur mailan ari diren neska-mutilen kopurua ere biderkatu egin da. Geroa bermatzeko hazia ereiten ari dira, beraz

Ezin ahanztz daiteke, halere, oraindik oso zaila dela boxeotik bizitzea. Euskal Herrian, Kerman *Revolver* Lejarraga morgarra eta Jon Fernandez baino ez dira soilik boxeotik bizi. Beste kasu guztietan (Gago, Mendoza, Ponpilio, Diaz, eta abar), boxeolariak lan egiten dute, kirol ibilbidea aurrera ateratzeko horrek dakartzan zailtasun guztiekin.

Boxeoak egonkortzeko behar ko lituzkeen faktoreez galdetuta, sustatzaileek telebisten eta medioen aldetik apustu indartsua edota inbertitzaileen beharra aipatzen dute. Jon Fernandez ustez, beste kontu bat da falta dena: «Jendeak boxeo kultura izatea falta da, eta hori lortzeko bide bakarra dago: kirol hau gizarteratzen jarraitzea».

Andoni Gago Bilboko Otxarkoaga auzoko boxeolariaren eskuak, bendak jarrita. Iñaki MENDIZABAL



PEDRO MARI GOIKOETXEA

«BOXEO IZARRAK» SAIOAREN AURKEZLEA

«Egun Euskal Herrian horren maila altuan ari diren boxeolariak izatea ia-ia miraria da»

Joan den udan mende laurdena bete zuen ETBren “Boxeo Izarrak” saioak, luzaroan boxeozaleek beren kirol kuttunera hurbiltzeko izan duten leiho bakarra. Sarri madarikatutzat jo den kirol honek izan duen bilakaera oso gertutik jarraitu du Pedro Mari Goikoetxea (Lezama, 1959) kazetariak: orain hamarkada batzuetako indarra, ondoren etorri zen gainbehera, eta, azkenik, duela bizpahiru urte berriro hartutako goranzko bidea.

Euskal boxeoaren mundua barrutik bizi dutenek diote maila altuko bertoko boxeolariak atera izanak eragin handia izan duela kirolaren goraldian. Nola azaltzen da fenomeno hau?

Oso zaila da jakitea zergatik sortu diren Kerman Lejarraga, Jon Fernandez edo Andoni Gago bezalako boxeolariak. Esango nuke ia-ia miraria dela. Arrazoiak bila hasita, bat bururatzen zait: aspaldi honetan, gimnasioak ugaritu egin dira eta gorputzaren «kultua» modan jarri da gure gizartean. Esan ohi da azken urteotan elizak hustu egin direla, eta gimnasioak bete. Adibidez, orain urte batzuk, oso klub gutxi zeuden Bizkaian bertan, bizpahiru baino ez, eta gaur egun hogeitik gora dira. Bizkaiko beste datu bat, bertan dagoelako mugimendu gehien: 2008an, 47 lizentzia zeuden guztira federazioan. Bada, aurtan, 2016an, 10 profesional daude, 174 afizionatu federatu mutiletan eta lizentzia duten beste 20 neska. Horrek argi erakusten digu denbora laburrean eman den aldaketa. Argi dago boxeoa kirol egokia dela gorputz atalik gehienak lantzeko. Beste kontu bat da lehiatzea, baina probatu duten gehienek diote boxeoak “engantxatu” egiten duela...

Egoera honek izan du islarik komunikabideetan?

Orain dauden maila altuko boxeolariak zerbait lagunduko zuten boxeoa komunikabideetan aipa dadin, baina ez dauka zerikusirik garai batean boxeoak medioetan zuen tokiarekin. Futbolari buruz hitz egiten den bezala, aspaldi egunero ateratzen ziren boxeoari buruzko albisteak. Gero, urte askoan, ez da ia ezer ere idatzi.

«Boxeo Izarrak» saioak, aldiz, urte asko daramatza ETBn.

1991ko udan, “Boxeo Izarrak” izenburupean, hamahiru saio egin genituen, txapeldun handien inguruko monografikoak eskainiz: Sugar Ray Robinson, [Muhammad] Ali, George Foreman, [Evander] Holyfield... eta bat euskal boxeoari ere eskaini genion, [Paulino] Uzkudun eta Urtainekin. Hortxe hasi zen saioa “Boxeo Izarrak” moduan. ETBk 1984an eman zuen lehenengo borrokaldia, Andoni Amaña eta Jose Lozanoren arteko Espainiako Txapelketa.

Zein da saioak urte hauetan zehar egin duen ekarpena?

Boxeozaleei leiho bat ireki die euren gustuko kirola ikusi ahal izateko. Ez dezagun ahaztu askorentzat kirol hau madarikatua dela,



ETB

zenbait komunikabidetan debekatuta egon dela eta dagoela, baina jarraitzaile sutsuak eta oso leialak dituela. Horiei guztiei munduko boxeolaririk onenak eta borrokaldirik erakargarrienak ikusteko aukera eman die saioak. ETB txikia da, ezin du askorik eskaini, baina Estatu mailan, esaterako, bakarrak gara. Boxeoarekiko zaletasuna erabat ez itzaltzekougarra mantendu du saioak.

Eta hori ordutegia, ostiral gauekoa, ez dela hasiera batean egokiena...

Horregatik esan dizut benetako zaleak oso leialak direla eta horregatik jarraitzen dute saioa, nahiz eta gehienetan gauerdia pasata hasten den. Baina badu abantaila bat: programazio aldetik ez dio inori trabarik egiten, eta errazagoa da ordutegi horretan saio bat hainbeste urtean mantentzea. Guk aurrekontu txikia daukagu eta borrokaldiak erosteko tirabiran ibiltzen gara astero. Bakoitzak zer den eta zer egin dezakeen jakin behar du, eta maila

horretara egokitu. Orain arte, ondo joan zaigu.

Urte hauetan guztietan boxeoak izan duen eboluzioa nola laburbilduko zenuke?

Argi daukat duela 45 edo 50 urte Euskal Herrian boxeo zaletasun ikaragarria zegoela. Zenbat etxetan jaikitzen ziren, telebistaren lehen urteetan, goizaldeko orduetan, Aliren borrokaldiak ikusteko?

Urtainek sortu zuen eromena eta biltzen zuen jendetza ikaragarriak ziren. Afizionatu mailatik pasa ere egin gabe Ordizian egin zuen debuta, futbol zelaia jendez gainezka jarritz. Horrek esan nahi du sekulako zaletasuna zegoela. 90eko hamarkadatik aurrera, krisi larri eta luzea bizi izan zuen boxeoak eta azken bizpahiru urteotan, bereziki Bizkaian, berpizkunde bat izan du.

Moda kontuez aparte, zeintzuk izan ziren beherakada horretan eragina izan zuten faktoreak?

Alde batetik, gizartearen aldaketa. Boxeolariak sortzeko giro jakin bat behar da, hori sustatuko duena. Gizartea aldatzen doan heinean, jendea hobeto bizi da, erosoago, eta horrelako kirolak alde batera uzten ditu.

Bestetik, boxeo munduak irudi txarra transmititu izan du: kirolarien aldetik, sustatzaileen aldetik, komunikabideen aldetik... Horrek jendea uxatu egin du eta, gainera, boxeo munduan dirua arriskatzeko prest zeudenak ere gutxitu edo desagertu egin dira.

Azkenaldian, baina, badirudi boxeoak irudi txar hori eta aurreiritziak atzean uzten ari dela...

Ez nuke horrenbeste esango. Boxeo munduan asko hobetu beharra dago: hasi sustatzaileengandik, komunikabideengandik, federazioak... Boxeo munduan ez dago batasunik, denbora gehiago ematen dute bata besteari kalte egiten kirola bultzatzen baino. Kirol guztietan izaten dira

konpondu ezinakin, baina, boxeo munduan, gauzak beste bide batetik eramateko lan asko egin beharra dago.

Hori litzateke, beraz, gurean kirol hau egonkortzeko eta aurrera egin ahal izateko ezinbesteko faktorea?

Zalantzarik gabe. Orain, boxeolari batzuk ditugunez, lan horrekin jarraitu beharko genuke, gehiago izan daitezten, jendea animatu dadin... Baina, noski, lan handia egin behar da eta, gero, boxeolari horiek erakustoki bat behar dute: goi mailako kirolari sentitu behar dira, gizartean maitatuak, eta dirua ere irabazi behar dute. Hori oso zaila da Euskal Herrian, txikiak garelako, hemen ez delako horrenbesteko jendetzarik mugitzen, atzetik telebista indartsu bat ez dagoelako, eta abar. AEBetan boxeo saio handi batek, gau batean, 200-300 milioi dolar sor ditzake, futboleko Lehen Mailan dauden euskal talde guztien aurrekontua baino gehiago. Hemen ez dago horretarako ahalmenik. Oso maila apalean ibili beharra daukagu. Kirol honetan, mutur joka ibili beharra dago, baina ringean bakarrik. Hortik kanpo, elkarlanean arituta ere nahikoa zeregin! Dena den, mundu oso itxia da: gutxi dira, eta, gainera, elkarrekin ezin konpondu, bakoitzak bereari bakarrik begiratzen dio eta bata besteari trabak jartzen dizkio. Hori denen kalterako da.

Zaleei dagokionez, esango al zenuke AEBetara begira izan direla Euskal Herrian bertan gertatzen ari zena jarraitu gabe?

Ez, eta adibide bat jarriko dizut. Benetako saskibaloi zalea denak, NBA jarraituko du, baina hemen gorengo mailan dauden taldeak ere jarraituko ditu gertutik, horien partiduetara joango da. Oso jarraitzaile sutsua bada, NBAko partidurik onenak ikusiko ditu, ikusgarria delako edo jokalaririk onenak han daudelako, baina bertoko taldeen jarraitzaile izango da. Boxeoarekin, berdin. Zaleek, urte batzuetan, ikusi ahal izan duten apurra Ameriketako edo Europako borrokaldiak izan dira, hemen ezer gutxi zegoelako.

Aukerarik badu, Mayweather, Pacquiao edo Tysonen borrokaldiak ikusiko ditu, baina, hemen Kerman Lejarraga, Jonfer edo beste edozeinen borrokak ikustera ere joango da. Hori esperientziatzat diot, hemengo boxeolariren bat nabarmentzen hasten denean, jendartean ikusmina sortzen baitu: galderak egiten dizkigute, sarrerak eskatu, eta abar...